

## -HITZARMENKIDEAK-

### MERKATARITZA

ADELA GARTEIZ arropa dendea, AINHOA oinetakoak, AIZU aldizkariak, ALKAR jolasak eta kirolak, ALLUNTZ burdindendea, AMILOTX liburua dendea, ARES opitegia, ARGIBIDE elektrizidada, ARRIEN optika, ARRONATEGI pinturak, ARTEIXE argi dendea, ATXIKE ehiza eta arrantzea, BALART arropa dendea, BARRAZARRA musika dendea, BAREÑO jantzi dendea, BARTZOKIA jatekoa, BAZAR TXIKIA bazarra, BCD S koltxoak, BEGO ETA NEREA lurriedegia, BEREZI liburua dendea, BIDAGUREN gozotegia, BIKANA aitzariak, BILBAO asegueroak, BLUEVELVET arropa dendea, BOLINA jatekoa, BONILLA argazki dendea, BRONCEARILUM estetika zentroa, DECOREV dekorazioa, DESMAYO SURF arropa dendea, DIONISIA arropa dendea, DOMINGEZ farmazia, DONIBANE albaitaritza, DUKA arropa dendea, DUSI lentzeria, EL CASERIO jatekoa, EGUREN optika dendea, ELORRI artea, EROSKI bidaiak, ETXABE kirol dendea, ETXEKO makailoak, GAROA konplementuak, GAUBEKA liburua dendea, GERNI GARDEN lorak eta animaliak, GERNIKA ortopedia, GERNIKA Zerraldia, GIZON arropa dendea, GLOSS arropa dendea, GORA BERA apainketa, GOTZONE umeentzako dendea, GUREA altzari dendea, IBARDE tapiz dendea, ILARGI dekorazioa, INTER SPORT EXTREME, IRAZABAL burdin dendea, IZAGA uleapaindegia, IZASKUN EGURROLA uleapaindegia, JM bideo kluba, JOSTEN umeentzako arropak, JOSU jatekoa, JUANITA MUGATEGI mertzeria, KILIKILI opari dendea, KIPU kirol dendea, KOPIASTER kopistegia, KOPIKOLOR kopistegia, KORTZUBIKE jolasak, KOTOI mertzeria, LAGUN elektrotresnak, LAGUN ON albaitaritza, LAZOS bideo kluba, LEIDE jostailu dendea, LOIOLENE fruta dendea, LUMIERE uleapaindegia, MABE poltsa dendea, MADARIAGA hortz klinika, MARI TERE okindegia, MARIA LUISA lurriedegia, MARIAN uleapaindegia, MAXI EROSKI, MENDI KIROLAK kirol dendea, MIKEL altzariak, NAIJA arropa dendea, NERE KABIA taberna eta jatekoa, OIHANA zapata dendea, OJANGUREN elektrotresnak, OLAGA umeentzako arropak, OMAETXEBARRIA farmazia, OMAGO okindegia, OMAGO dastalekua, OMAGO dietetika, OMAGO txiki kateak, OMAGO txiki kateak, OMAGO kafetegia, PARAPHERNALIA jantzi dendea, PEDRO BILBAO gozotegia, PEPI urdaitegia, PODIUM garaikurrak, PR3ST arropa dendea, PUINBALA umeen arropak, QUOKKA arropa eta oinetakoak, SAN JUAN loteria, SANDALIO harategia SARASPE opil okindegia, TAOS arropa dendea, TODO DESDE 100 bazarra, TOTORIKAGUENA jantzi dendea, TRENBIDE arropa dendea, TXANKAN arropa dendea, UGALDE ortopedia, UMEAK umeentzako guztia, URANGA uleapaindegia, URDAIBAI artekaritza, URDAIBAI informatika, USKOLA baserri tresnak, VIT-SEC tindategia, ZALLO harategia, ZALLO BARRI jatekoa, ZARRA prentsa-aldizkariak, ZUBIALDE okindegia, ZUGATZA eskaratzeko altzariak, ZURICH asegueroak.

### ENPRESAK

ABAUNZA Aholkularia, AITA VILLASANTE Udai Euskaltegia, AKELARRE Ostatu, ALGELEK SL, ARGÍ OLA Elektrizitatea, ARRONATEGI Pinturak, ARROYO Banaketak, BENGOSARRA Eraikuntza Metalikoak, BUSTURIALDEKO IRRATI TELEBISITA SL, CASMARCO SL, COR SL Aholkularia, DISBARAN Banaketak, EXCLUSIVAS GERNIKA, Ilunzar, GERNIKA GARBIKETAK SL, GERNIKA INMOBILIARIA, GERNIKA KIROLEKUA, GONDRA ABAROA Asegueroak, GORRA Bulkanizatuak, Inbxausti SA Eraikuntzak, Irazabal Ardatzgia, Izagurre Eraikuntzak SA, JOSE LUIS Kristaldia, MACIAS Inmobiliaria, MALLUKIZA Aroztegia, NAGER Aroztegia, SAN ISIDRO KOOPERATIBA, SANJO INOX Tailerra, SENDAGAI Osasun Zentrua, SERENOR, SORKUNDE Finka Administrazioa, SORTALDE Energia Alternatiboak, TALLERES SANJO Tailerra, ZAINKA produktzioak.

### GEURE BERRIE EUSKERAZ

AGIRI ALKARTEA, AIURI, ALARGUNEN ALKARTEA, ANDRA MARI KORALA, ARKUIPE PILOTA TALDEA, ARRANO KULTUR ALKARTEA, AVIFES, BAKE LEKU, BAKEAREN ARBOLA, BARRUTIALDE ANTZERKI TALDEA, BUSTURIALDEAN EUSKERAZ, EHIZTARI, ARRANTZALE ETA TIRATZAILA ALKARTEA, ELAI ALAI DANTZARI TALDEA, ELIZBARRUTIKO KARITAS, EMAKIDE, GERNIKAKO EMAKUME ALKARTEA, GAUDEAMUS KORALA, GAZTEAK KULTUR TALDEA, GERNIKA FUTBOL SALA, GERNIKA OFF ROAD, GERNIKA RACING ALKARTEA, GERNIKA SASKI BALOI ALKARTEA, GERNIKA SPORTING FUTBOL TALDEA, GERNIKALUMOKO MERKATARI ALKARTUAK, GERNIKAKO ARKU-TIROKETA ALKARTEA, GERNIKAKO ARTE ESKOLA, GERNIKAKO BERTSOLARI ESKOLA, GERNIKAKO EKOLOGI LAN TALDEA, GERNIKAKO RUGBY TALDEA, GERNIKATIK MUNDURIA, GERNIKAZARRA HISTORIA TALDEA, GOZALE, GOIZEKO IZARRA GAZTE TALDEA, HILARGI LORE, IDEASUR, IEUP GAZTEEN ALKARTEA, KOSNOAGA GAZTE TALDEA, MAKATZ ITURRI TALDEA, MAKAZAGA MUSIKA ALKARTEA, MUSIKEDER, ODOLKIDEAK, OSTARGI ABE-SBATZA, S.D. GERNIKA KLUBA, SOCIEDAD CICLISTA GERNIKESA, TURDAIBAI, TIRIS GERNIKA SAHARAREN ALDE, URDAIBAICO PERRETIXOZALEAK ALKARTEA, URDAIBAICO RUGBY ESKOLA, URDAIBIKERS MOTORZALEEN ALKARTEA, ZANTZOÁ EUSKAL KULTUR ALKARTEA.

## ARRANTZAN BE EUSKERAZ

EDUARDO LAUZIRIKA

Ehiztari, Arrantzale eta Tiratzaileen Alkarteko presidentea

Gernika-Lumoko Ehiztari, Arrantzale eta Tiratzaileen alkarreak, antolatzen dituen kanpoko ekintzen artean Arratza Eskola sortuta dauka, Gernika-Lumoko Udala, Ajangizko Udala eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntasunagaz.

Arratza Eskola orain dala 8 urte sortu zan, eta ordutik ona urtean 35-40 umek emoten dabe izena. Eskola honen bidez hainbat umek ezagutu dabe erreka arratza, eta gustetan jaken ala ez jakin dabe.

Lagun artean eta besteei laguntzeko helburuagaz, Oka erreka magalean, Arratza Eskola lez adierazotako 200 metroko zatian batzen dira asteburuetan.

Ekintzak alkarteko begiraleek zuzentzen dabez, eta jarduerak guztiak eskuz eraz izaten dira. Izan be, Gernika-Lumoko Ehiztari Arrantzale eta Tiratzaileen alkarreak ahalegin handia ipinten dau euren taldean euskeraz jarduteko kanpo zein barruko komunikazioan.

Alkarte barruko gutunak ele bietan bialtzen dabez, zirkularrak be bai, eta horrezaz ganera, aurten bazkide txartela be euskeraz hutsean ipini dabe.

Apurka-apurka euskerea normalizatorako bidean doa alkarrean.



Arrantza eskolako ikasleak

## MERKATARITZA HIZTEGIA - Harategiak eta Urdaitegiak

**idi lepokoa:** aguja de buey

**hirugiharra:** beicon

**ahuntza:** cabra

**egosteko okela:** carne para cocido

**txorizo keztatua:** chorizo ahumado

**pernil egosia:** jamón cocido

**porru odolostea:** morcilla de puerro

**Burgosko gazta:** queso de Burgos

**Gorbeako gazta:** queso del Gorbea

**biribilkia:** redondo

**burmuina:** seso

**txahala:** ternera

**urdaia:** tocino

**babila:** tetilla

# geure berbie euskera z

Erredakzioa eta maketazioa: ARTEZ Euskara Zerbitzua



2007 urtea  
12. zk.

Argitaratzailea: Gernika-Lumoko Udala



### Dendariak bikain

Gernika-Lumoko Udalak Merkataritza Euskalduntzen kanpainari aspaldi emon eutson hasierea.

Saltoki batzuk kanpaina hasi zanetik dabil hartutako konpromisoak beteten, beste batzuk barriz beranduago sartu arren behar ederra burutu dabe hitzarmean. Horreen artean, Berezi, Bareño, Alkar Kirolak, Oihana Oinetakoak, Mabe, Marian Orraztegia, Arrien Optika, Paraphernalia, Pr3st, Josten eta Quokka aitatu behar doguz.

Saltokiok urtetik urtera euskeraren normalizazioan behar ederra burutu dabe, eta gaur egun %90 puntutik gorakoa da euren establezimenduetako euskerearen erabilera.

Gaur egun 116 dira hitzarmena sinatuta daukien saltokiak, eta goian aitatutakoen bidea jarraitzen dabe.

## NOMINAK EUSKERAZ

Gatxa izan arren, Gernika-Lumoko aholkularitza enpresa batzuk nominak euskeraz egiten hasita dagoz. Izan be, behar lekuan euskereak gitxienez gaztelaniak hainako lekua lortzeko arlo guztiara zabaltzea ezinbestekoa da.

Sarritan oztupoak eukiten doguz, eta aurrera egitea erreza izan ez arren, Gernika-Lumoko ZUBI eta ABAUNZA aholkulariak euren berezoez hizkuntz eskubideak bermatzen ahalegintzen dira. NOMINAK EUSKERAZ be eskeintzen dabez bi hitzarmenkideok.

Gaur egun saltoki eta enpresa gehienek aholkularitza enpresak kontratatzen dabez euren barruko kudeaketa beharra egiteko, besteak beste, kontratuak, errenta aitopenak, nominak eta abar. Horrenbestez, aholkularitza enpresek euskerearekiko daukien jarrereak asko baldintzatzen dau gure herriko enpresa eta saltokien barruko hizkuntza egoera.

Gernika-Lumoko merkataritza eta enpresa txikiak hitzarmenkideak makina bat bider ahalegindu dira euren aholkularitza enpresek daukiezan idatzizko hartu-emonak euskeraz burutzen; baina orain arte egindako saiakerek porrot egin dabe. Zubi eta Aabaunza aholkularitzek pauso garrantzitsua emon dabe arlo horretan, izan be, apurka-apurka, euren bezeroei zerbitzua ele bietan eskeintzen dabil.

Horrezaz ganera, COR Gestoria be bezeroei bialtzen deutseezan gutun batzuk ele bietan egiten hasi da, eta kontratazino barrietan behargin euskaldunen alde egin dau.





## Dos empresas más a favor del euskera

Este año, han firmado el acuerdo para fomentar el euskera otras dos empresas, SERESNOR Y GERNIKA KIROLEKUA. La primera se dedica a la estampación de metales, y la segunda al deporte.

Hoy en día 32 empresas de Gernika-Lumo trabajan duro para que en sus negocios el euskera vaya normalizándose poco a poco. Entre ellos hay empresas de todo tipo, tales como, centros de salud, administradores de fincas, asesorías, carpinterías, cristalerías etc

Tal y como nos muestran las empresas de Gernika-Lumo, el tipo de trabajo no es un obstáculo para la normalización lingüística del euskera.

## Ordenagailua be euskeraz

Enpresa txikiak azken urtean lorpen handiak egin dabez, eta arlo honetako euskerearen erabilereak gora egin dau nabarmen.

Burututako aldaketen artean hona hemen enpresa askok hartutako erabagiak: enpresa askok fax orria ele bietan ipini dabe, eta hartzailea euskalduna dala dakitenean euskeraz bialtzen dabe, irratian publikidadea egiten dabenen artean be euskeraz egitea erabagi daben kopuruak gora egin dau, telefonoko mezu-erantzungailua ele bietan jarri dabe hainbat enpresak, eta fakturak euskeraz egiten ahaleginduten dira.

Ordenagailuetan windows euskeraz instalatzera ausartu danik be badago.



## Gernika Garbiketak: Euskera Plana Indartsu

Gernika Garbiketak-ek igaz ipini eban mar-txan hiru urterako Euskera Plana.

2006rako 16 helburu jarri ebazan, eta urtea amaitu zanerako aurreikusitakoaren %80a bete eban.

Aitatu behar da, bete barik geratu ziran helburuak euren esku ez egozanak izan zirala.

Horrezaz ganera, aurreikusi bako helburu bat be bete egin eben. Hori dana lortuteko, hainbat ekintza burutu ziran urtean zehar, besteak beste euskera eskolak.

2006an euskerearen erabilerearen indizeak gorakada itzela eduki eban, eta gaur egun %66,2 puntutan dago.

## Alkarrizketea: Busturialdeko Irrati Telebistako Itsasogaz berbetan

-Zenbat atal ditu Busturialdeko Irrati Telebistak?  
Batetik, Oiz Mendi Telebista, eta bestetik Onda Vasca Irratia. Telebista euskeraz, eta Irratia gaztelaniaz.  
Halandabe, euskerazko irratia egin nahi dogu, Onda Vasca aldatzea ez da erraza izango, beraz, euskerazko irratia bat sortzeko ideia darabilgu gure artean.

-Zer dala eta erabagi zenduen Euskera Plana martxan ipintea?  
Batetik, beti euki dogu euskerearen aldeko jarrera. Orain dala urte batzuk berbaite euskeraz egiten hasi ginen, gutunak eta abar.  
Gero, telebista euskeraz egitea erabagi genduan. Busturialdea eta Lea-Artibain emititzen dira gure programak, eta eskualde euskaldunak dira, beraz, eskualdeko telebista euskalduna egin nahi dogu.  
Hori guztia aurrera eroateko, Euskera Planak asko lagunduko deuskulakoan gagoz.

-Planari jagokonez, ze pausu emon dozue orain arte?  
Enpresako euskerearen azterketa zehatza egin da, eta horretan oinarrituta Euskera Plana diseinatu eta martxan ipini dogu.  
Gure helburu nagusia euskeraz behar egitea, eta zerbitzua euskeraz eskeintzea da.

-Zein da ikusten dozun zailtasuna euskerazko telebista aurrera eroateko?  
Baliabide ekonomikoak. Ez dago dirurik. Gure baliabide nagusia publikidadea da, eta gaur egun, oraindino, gaztelaniazko publikidadearen alde egiten dau jentekak. Guzurrak dala emoten dau, gaztelania euskera baino hobeto ikusita dagoala pentsetan dauan jente asko dago hemen. Gure baliabide nagusia irratiko publikidadea da.

-Zer esango zeunskie oraindino gaztelania hutsean funtzionatzen daben enpresei?  
Bilurrak alde batera itxi eta probetako. Ele bietan funtzionatzen hasteko, aproba egiteko.



## Gernika-Lumoko alkarteetan euskaldun asko

Gernika-Lumoko alkarteetan urtereko pu-soak txikiak badira be, gero eta euskera gehiago egiten dabela adierazoten deuskue datuek.

2006an Kanpoko eta Barruko Komunikazioetan eta Motibazioan jaso da igoerea.

Kanpora begirako hartu-emonetan alkarte asko izan dira webgunea aldatu eta ele bietan jarri dabena, adibidez, Gernika Kluba, OEB Gernika; beste batzuk barriz sortu egin dabe, eta euskeraz eta gaztelaniaz ipini dabe, Turdaibaik... Horrezaz ganera, alkarte askok euren ekintzen barri emoteko prentsara informazioa bialtzen dabe, eta batzaz beste %97 ele bietan edo euskera hutsean burutzen dabez.

Taldeko bazkideen arteko hartu emonei jagokonez be, azken neurketan puntu biko igoerea lortu dala ikusi da; komunikazio horreetan puntuazioa baxuagoa da, batzaz beste %54 egiten da euskeraz. Izan be, kideen arteko alkarrizketa ohiturak aldatzea ez da erreza izaten, eta are gitiago batzarrek euskeraz egitea tartean eraldun bat badago.

